

4 - 7 eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Laguntzak kudeatzen dituen zuzendaritzari informazioa biltzeko BAIMENIK EMAN EZEAN aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egiaztatzeko	Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak	Non lortu
Nortasuna	Indarrean dagoen eskatzailearen eta ezkontide edo bikotekidearen NANA, AIZa edo pasaportea	Polizia-etxeak edo enbaxadak
Filiazio-harremana	<ul style="list-style-type: none"> Familia-liburua edo Hitzez hitzeko jaiotza-agiria edo erregistro zibileko ziurtagiria 	Erregistro zibila
Familia-errola	Familia-errolaren ziurtagiria (eman berria - onartutako gehieneko antzintasuna, 3 hilabete)	Udaletxeak
Errola historikoa: <ul style="list-style-type: none"> Azken urtea edo 5 urte jarraian azken 10 urteetan 	Eskatzailearen errola-ziurtagiri historikoa (eman berria - onartutako gehieneko antzintasuna, 3 hilabete)	Udaletxeak
Laguntza eragin duen seme-alabaren desgaitasuna edo mendekotasuna	Desgaitasuna edo mendekotasuna egiaztatzen duen administrazio-ebazpena	Euskadi: Foru Aldundia Estatua: Organo eskuduna
Banku-titulartasuna	Banku-titulartasunaren agiria, hauek jasotzen dituenak: erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia, titularraren izen-abizenak eta NAN/AIZ/pasaportea	Banku-erakundea Banku-erakundearen web-orria
Guraso bakarreko egoera	Euskadiko guraso bakarreko familien errolan inskribatuta egotea.	Eusko Jaurlaritza: Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritza

Egoerak	Egiaztatzeko	Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak	Non lortu
Familia-liburuan familia-unitatea osatzen duten seme-alaba guztiak agertzen ez badira	Filiazio-harremana	Honako dokumentu hauetakoren bat: <ul style="list-style-type: none"> Hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria Jaiotza- ziurtagiria eta inprimaki normalizatu eleaniztuna. Jaiotza-ziurtagiria edo antzeko dokumentua (euskarara edo gaztelaniara itzulia eta legeztatua, dagokionaren arabera, Hagako apostillarekin edo Kanpo Arazoetako Ministerioaren bitartez) 	Espainia: Erregistro Zibila Europar Batasuna: Agintari eskuduna Europar Batasunetik kanpo: Agintari eskuduna